

7.Funtsezko Baliabideak

Puntu honetan, gure enpresan behar ditugun baliabideak aipatuko ditugu; gure bezeroekiko harremana sortzeko edo garatzeko lagungarriak izango litezkeen baliabideak, gure balio proposameneko eskaintza garatzeko baliabideak eta diru sarrerak lortzeko baliabideak.

Gure enpresak, hainbat motatako baliabideak erabiliko ditu; baliabide fisikoak, intelektualak, giza eta finantza baliabideak.

Gure enpresa beharko dituen baliabide fisikoak hauek izango litzateke: alokairu bat (gure finantza arloa eta bertan gure ebaluaketak egiteko tokia edo batzartzeko tokia), garraioa (ospitale desberdinetara eta bertan behar ditugun materialak eramateko garraioa "furgoneta" antzeko bat), maila desberdinetako liburu hezitzaileak, alokairuan (argia, ura, elektrizitatea, ordenagailua, inprimagailua, aulkiak...)

Gure enpresak osotuko duen lan taldeak ez du lan esperientziarik baina hala ere gure enpresa aurrera eramateko motibatuta gaude. Bost pertsona osatutako taldea izango da, bakoitzak bere abileziak erabiliko ditu enpresa aurrera eta ondo joan dezan.

Maiderrekin, bere motibazioa erabiliko du umeez momentu on bat pasatzeko eta beraiekin interaktuatzeko, beste aldetik, Jennik, bere irudimenarekin eta umorearekin (umeez momentu on bat pasatu dezan eta umore onarekin ekintza desberdinak egiteko gai izateko), beste aldetik, Ainhoak, informatika arloan ondo moldatzen da, Leticia, antolatze eta pertsonen azalean jartzeko abileziak ditu eta bukatzeko, Anek entzuteko eta gauzak eguneratuta eramateko abilezia du.

Gure enpresak erabiliko dituen finantza baliabideak, hauek izango dira: bankuari eskatutako mailegua, gure aurrezkiak eta sortu nahi dugun liburu baten salmentak.